

Guadalupe Ama Birjinaren Jaiak

Urtero bezala Extremadurako Etxekoek Guadalupeko Ama Birjinaren jaia ospatu dute asteburu osoan zehar. Eguraldiak atsedenditxo bat eman zuenean eta Pili Fernandezek aurtengo agurra irakurri eta gero Jose de la Callek jarri zuen bandera bere lekuan.

Asteburu osoan zehar ospatu dira urtero moduan Guadalupeko Ama Birjinaren jaiak. Ostiralean 21:00etan, festari hasiera emateko, banderaren igoera egin zuten Extremadurako himnoarekin batera eta horrela asteburu osoan prestatuta zeuden jardueri ere hasiera eman. Ondoren afari herrikoia ospatu zen Extremadurako etxean eta menua, nola ez, Extremadurako kaldereta goxoa.

Larunbata umeen eguna izan zen, ekintza desberdinak egon baitziren haiei zuzendutakoak hala nola, marrazki txapelketa edo eta haur-jolasak. Extremadura gaiarekin marrazki ugari egin zituzten 7 urtetik 14 urte bitarteko umeek. Eguraldiak ez bazuen asko lagundu ere 200 haur inguru hurbildu ziren.

Bazkaldu eta gero Mus txapelketan aritu ziren batzuk lasai-lasai jandakoa ondo pausatze eta 18:00etan Ermuako "Flor de Tomillo" kultur taldearen koru

eta dantza ekitaldia hasi zen berriro ere gorputza martxan jartzeko.

Gau partean afaria egin zuten bazkideek gonbidatuekin. Bertara herriko agintariak ere gerturatu ziren eta bukatzean 25 urte baino gehiago Extremadurako etxean bazkide daramaten Fernando Arnaiz-i eta Antoni Lopez-i plaka bana eman zieten oroigarri moduan.

Gauerdian partean jaialdia ospatu zuten Uzturre plazan "Agirren Anaiak" taldearekin, hauekin batera urteroko dantza txapelketa ospatzeke. Gorputza nekatu eta kirol pixka bat egin eta gero etxeko andreak egindako "migak" banatu zituzten gaua zapore onarekin bukatzeke eta horrela gehiegi dantzatu zutenek indarra berreskuratzeko.

Igandeko eguna 12:30ean hasi zen Extremadurako Etxekoentzat, bertan, Guadalupeko Ama Birjinaren ohorezko meza ospatu zuten Oreretako "Monfragüe" koru



Bandera jartzeraoan Extremadurako himnoa abestu zuten bertaratutakoek.



Ezkerretara bandera jartzen eta eskuinera Fernando Arnaiz bere oroigarriarekin.



Agirre Anaiak taldeak ederki girotu zuen afalostea.

taldeak lagunduta. Ondoren, berriro ere, herri bazkarian elkartu ziren "cocido extremeñoa" jateko eta bukatutakoan tute txapelketa.

Arratsaldean, emakumeentzako bolo txapelketa egin zuten eta bukatutakoan asteburuan egindako joko ezberdinen irabazleei sariak banatu zizkieten elkartean bertan.

Jai giroan ospatutako asteburuari amaiera emateko 19:30ean banderaren jaitsiera egin zuten horrela datorren urtera arte agur esan zioten Guadalupeko Ama Birjinari. •

Borja Apeztegia, Amaia Amiano eta Miren Bardaji ur irekietako igeriketari buruz /2

KIROLA 3
Haritz Borda futbolari lasarteoriarrak, Athletic-eko bigarren taldean jokatu du

Helduentzako euskarazko aisialdiaren eskaintza aurkeztu zuten /04-05

Ezkonteraztunak



IZARRA BITXITEGIA

www.izarrabixitegia.com

IPARJOY A.I.E.



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 •
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

‘Arnasa hartzean aurrera begiratzea oso garrantzitsua da orientaziorako’

Kontxako Badiako proba larunbatean jokatu zen. Ez izutu, ez goaz eta arraunketari buruz hitz egitera, distantzia luze edo ur irekietako igeriketari buruz baizik. Izan ere, larunbateko lehiaketan lasarteoriar bat izan genuen, Miren

Bardaji; Amaia Amiano ere joatekoa zen, baina gaixotu eta etxean geratu behar izan zuen. Baina, zer da distantzia luze edo ur irekietako igeriketa eta zein desberdintasun ditu igerilekuko igeriketarekin? Hernaniko

Igeriketa taldeko entrenatzaile den, Borja Apeztegia eta Miren Bardaji eta Amaia Amiano igerilariekin hitz egin dugu kirol honen nondik norakoak jakin eta lasarteoriarrek egin duten denboraldiaren berri izateko.

Nerea EIZAGIRRE

Nola du izena ur irekietako denboraldiak?

Distantzia luzeko VIII. Gipuzkoako Txapelketa 2008 da eta hainbat probak osatzen dute, hala nola, Getaria Zarautz travesia, Donostian Kontxakoa, etab.

Igeriketaren antzera mailak egongo dira, ezta?

Infantil mailatik gorako mailak daude. Baina igeriketan ez bezala, hemen adin tarte gehiago dago, 21 urte azpikoak, 18 urte azpikoak, etab.

Zertan datza proba bakoitzak?

2500 eta 3000 metro arteko probak dira. Iraupenari dagokionez, 35 edo 40 minutu iraupena dute, itsasoa eta mailaren arabera. Batzuetan eseak egiten badituzte gehiago irauten du.

Gipuzkoako txapelketa izanik, partehartzaileak gipuzkoarrak al dira soilik?

Proba irekiak dira, beraz, federatua dagoen orok parte hartu dezake, hemengoak zein Estatukoak. Gehienak igeriketa taldeetakoak dira, baina badago horretan espresuki jarduten direnak ere.



Borja Apeztegia, Hernaniko Igeriketa taldeko entrenatzailea.

Itsas gorak eta itsas beheak kontuan izan behar dira?

Berez marea ez da kontuan izaten, baina olatuak kontuan izan behar dira, hauen indarrarekin jokatu behar baita batzuetan.

Noiztik itsasoko probak prestatzen?

Igerilekuko igeriketako denboraldia luzea da, 9 edo 10 hilabete, Espainiako txapelketa iristen bazara. Baina ez dira guztiak hainbestera

iristen eta denboraldi bukatzarekin batera ur irekikoa hasten da. Honela, Getaria proba burua deskonektatzeko erabiltzen dugu, baita beste igeriketa modu bat egiteko ere. Igerilekuko denboraldiak asko kargatzen ditu eta ez diegu emaitza onik eskatzen. Honi esker igerilekuko txipa aldatzea da nahi duguna.

Itsaso eta igerilekuko desberdintasunak zeintzuk dira?

Igeriketa teknika desberdina da, besokaden forma, arnasketa eta besoen euskarria aurrera begiratzeko erabiltzen da, orientazioa ur irekietan oso garrantzitsua baita. Aurrera begiratzu ez dira eseak egiten eta 3000 metro baino gehiago egitea saihesten duzu. Hala ere, gure igerilariak ur irekietan igerilekuko teknika erabiltzen dute.

Itsasoko igerilariaren ezaugarriak zeintzuk dira?

Biotipoa edo fisikoki berdina da. Ur irekietan dabiltzan, gazteetan igerilekuan ibili izan dira. Esan bezala teknika da aldatzen den bakarra.

Prestaketa berezia behar da?

Hortara jardun nahiez gero, bai, izan ere, distantzia luze-

goak dira. Igerilekuan luzeena 1500 metro dira, itsasoan, aldiz, 3000, 5000 metro edo 25 km. Beraz entrenamendua desberdina da, luzeera eta iraupena abiadura baino gehiago lantzen da.

Itsasoan entrenatzea ezinbestekoa izan beharko du?

Mirenek eta Amaiak ez dute itsasoan entrenatzen, baina triatloikoek bai, hori baita bere igerilekua. Era honetara bere teknika lantzen dute.

Neoprenoa edo bainujantzia erabiltzen da?

Bainujantzia, neoprenoa ez dago onartua. Honek flotagarritasuna handitzen du, ur gainetik zoaz eta azkarrago. Honela, igerilekuko bainujantzi berak erabiltzen dira horiek dira arautu eta onartuak daudenak.

Larunbata honetan Kontxako Badiako LXV. Igerialdian parte hartu duzue? Nola ikusi dituzu lasarteoriarrak?

Hernaniko taldeko 10 igerilari parte hartu dute. Lasarteoriarrak porretan egon dira eta ez dute entrenamendurik egin, helmugara iristearrekin lan txukuna egin dutela esango nuke.

Eta nolako denboraldia egin dute?

Getaria Zarautz travesia igerilekuko denboraldi bukatzarekin bat egiten du eta orduan txukun ibili ziren, Mirenek 7. egin zuen. Kontxako badiara Miren bakarrik joan da azkenean eta eguraldi txarrenekin ez da oso ondo ibili.

Hurrengo denboraldietan jarraituko al du taldeak ur irekietan?

Bai, noski. Getaria Zarautz travesia egitea ohitura da dagoeneko gure taldean. Baina bakoitzak ikusiko du nora egiten duen.

Honela itsasoko denboraldia bukatu da eta orain igerilekuko prestatzera, ezta?

Bai, aste honetan hasiko gara. Denboraldia poliki poliki hasten dugu, fondoa hartzeko helburuarekin. Txapelketei dagokionez, aurrerago ikusi beharko.



Miren Bardaji eta Amaia Amiano Igerilariak

Esperientzia desberdina izango da, ezta?

Bai, noski. Ez duzu ezer ikusten. Gainera, arrain batek ikutu zaitzake eta olatuekin jolastea daukazu. Oso ongi dago.

Igerileku eta itsasoko desberdintasunak zeintzuk dira?

Itsasoan ez dago markarik, ez dago paretik, jende asko dago eta denak leku berdinetik joateko jotzen gara. Honetaz gain, Itsasoa oso zabala dena, beti berdina eta aurrera egiten ez duzunaren sentsazioa duzu.

Hotzari aurre egiteko zerbait jutzen al duzue?

Ez, ezer ere. Nahiz eta udara izan, ura fresko dago, baina igeri egiten hasten zara eta ez duzu antzematen. Hala ere, oso garrantzitsua da baselina ematea, beso azpiak minberatu edo urradurak sortzen baitzaizkizu.

Hurrengo urtean jarraitzeko asmorik al duzue?

Bai (Miren). Ahal baldin bada. (Amaia)

Orain igerileku denboraldira prestatzera, ezta?

Orain lan egiten hasiko gara eta iazko markak hobetzea espero dugu.

Noiztik itsasoan lehiatzen?

Duela hiru urte hasi ginen. Getaria Zarautz travesia izan zen egin genuen lehenengoa.

Zein mailatan lehiatzen zarete?

2800 metroko ibilbidea egiten dugu, baina itsasoan zail da zuzen mantentzea eta, azkenean, gehiago izaten dira.

Zer moduz denboraldia?

Miren: Nik bi probak egin ditut, Getaria Zarautz eta Kontxako travesia. Getaria Zarautzen 7. postuan bukatu nuen eta Kontxakoan ez nuen esperientzia ona izan, 3 metroko olatuak zeuden eta ura oso hotza.

Amaia: nik Kontxako travesia egin behar nuen, baina gaixotu egin naiz eta ezin izan dut joan.

Zergatik igerilekutik itsasorako aldaketa?

Taldeko batzuek zioten travesia egitea ongi zegoela eta hoberena zela. Probatzera animatu gintuzten eta animatu ginen.

Haritz Borda Futbol jokalaria

‘Athletic-era etortzea zen neukan aukerarik interesgarriena’

Haritz Borda Lasarte-Oriako futbolariak hiru aste daramatza Athletic-eko bigarren taldearekin entrenatzen. Beraz Real-eko bigarren taldetik Athletic-eko bigarren taldera pasatu da, beti ere lehen taldean jokatzea gogoan. Atzelariak Real Union Irungo taldean jokatu zuen iaz, udaran proba bat egin du Ingalaterrako bigarren mailako talde batekin baina azkenean, Bilborako bidea hartu du. Denboraldi hasierako entrenamenduen artean tarte bat hartu eta erabakiaren berri eman digu.

HELENA FERRERAS

Haritz Borda Etxezarreta lasarte-oriarrak bizitza erdia darama futbolari lotua. Errealekoa izan da orain artean, eta 23 urterekin Athletic-eko bigarren taldeko atzelari lanetan jardungo da denboraldi honetan.

Nolatan Athletic-en? Eta noiztik?

Duela hiru astetik nago hemen. Errealearekin neukan kontratua, baina iaztik Real Union taldean ari nintzen jokatzen utzita. Beste urte bete gehiagorako neukan kontratua, baina libre geratzea lortu dut eta hemen nago. Hau iruditu zait aukerarik interesgarriena.

Gipuzkoarra izanda, eta seguraski betidanik Realekoa, nola ikusten duzu zure burua Athletic-en?

Beste bezalako taldea da, arrunta, iaz ere Real Union taldean egon nintzen. Ni hemen gustora nago eta oso ondo.

Dagoeneko hiru aste daramazu hor, txantxarrik ez al dizute egiten Realekoa zarelako? Zer moduzko harremana duzu beste jokalariekin?

Harremana ona da, "giputxi" eta horrelakoak esaten dizkigute, baina ondo, oso ondo. Beste gipuzkoar bat ere bada go hemen, hernaniar bat, Gorka Kijera.

Bertan bizi zara? Eta futbolaz gain, besterik egiten duzu, lan edo ikasi?

Bai, Bilbon bizi naiz eta oraingoz futbolearen aritzen naiz bakarrik.

Zer moduz Kike Liñero entrenatzailearekin?

Ondo, oraingoz ez dut batere arazorik izan.

Aurten tokatuko zaizu Realaren aurka jokatzea, nolako partidua izango da zuretzat?

Han lagunak dauzkat eta horrexegatik partida berezia izango da, denbora askoan ibili bainaiz lagun horiekin jokatzen.

Kamiseta txuri urdina ikustean ez al zara nahastuko eta baloia behar ez den bati pasa?

Ez, ez dut uste.

Udan Ingalaterran egon zarela badakit, zertan egon zara eta zer moduz?

Proga bat egitera joatea nahi zuten, Lancasterrera. Hemen-

“ *Realaren aurkako partida berezia izango da, lagunak dauzkat eta denbora askoan ibili naiz horiekin jolasten* ”

“ *Ingalaterran geratzeko posibilitaterik bazegoen, baina Manchester City-ko zentral bat fitxatzea lortu zutela esan zidaten eta postua bion artean zegoela* ”



Urte asko eman dituen arren Errealean, bolada batean ez ditu berriro kolore horiek jantziko.

go bigarren maila izango balitz bezala da. Han hilabete lehenago hasten dute denboraldia eta justu samar joan nintzen, baina esperientzia polita izan da.

Aukerarik izan al duzu han geratzeko?

Bai, posibilitaterik bazegoen baina Manchester City-ko zentral bat fitxatzea lortu zutela esan zidaten eta postua ni eta beste baten horren artean zegoela.

San Mamesen jokatzeo aukerarik izan duzu dagoeneko?

Ez, oraindik ez.

Ez dituzu bertako zaleak eza gutzen beraz?

Derby batean egonda nago baina ikusle moduan.

Noiz hasi zinen futbolean?

Haur guztiak bezala parke batean hasi nintzen baloi baten atzetik korrika. Nik betidanik Donostian ikasi izan dut eta Lasarten soilik, alebin izan baino lehenago torneak jokatu nituen Peña Bidea taldearekin. Gero Lizeo Santo Tomasen ikasi dudanez hango taldean jokatzen nuen. Proba bat egitera joan ginen ikastolako guztiak Zubietara, hartu egin nindu-

ten eta handik aurrera hamar, hamar urte eman ditut Zubietan.

Serioago noiz hasi zinen ba Realean?

Txikitatik, hamar hamabi urte nituenean hasi nintzen.

Orduan kategoria ia guztiak pasa dituzu?

Bai horrela da.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Ona, oroitzen onak dauzkat. Bukaera izan da pixka bat aldrebasa. Baina gertatzen diren gauzak dira. •

Helduen aisialdia euskaraz

■ Ttakun Kultur Elkarteak herriko beste zenbait elkarteekin batera ostiralean auzetutako egitasmoaren helburu nagusia euskaraz helduen aisialdian duen hutsunea betezea da

Helena FERRERAS

Ostiralean Jalgi tabernan prentsaurrekoa eman zuten Maider Oiarzabalek, Joxe Kruz Labakak, Iñigo Bobillok, Joxe Mari Agirretzek, Kontxu Iartzak eta Mailu Arrutik aurtengo helduei zuzendutako euskarazko ihar-duerak aurkezteko. Bakoitza elkarte baten izenezan joan zen haien jarduerak zertan datzan azaltzera. Antzerki eskola, dantza garaikidea, Xumela korua, bertsolaritza, batukada eta Oinatz taldearekin iteera kulturalak dira hasteko proposatzen diren ekintzak. Hauetaz gain gauza gehiago antolatzeko aukera dago baina parte hartzaileen ideiak hartu nahi dira kontuan horretarako. Helburu nagusia, euskaraz arlo honetan daukan hutsunea betezea da herriko jendeak aisialdia euskaraz egiteko aukera izan dezan.

Helduek denbora librean egiteko jardueren eskaintza egon, badago, aerobika, yoga, pilatesa eta horrelakoak baina ekintza erdaldunak izaten dira hauek. Aisialdia euskaraz egiteko aukera gutxi dago eta oraindik gutxiago helduen kasuan. Hau dela eta euskaraz bizi nahi duen jendearentzat euskaraz hutesko jarduerak eskaini nahi dira Lasarte-Orian behar hori asetzeko asmoarekin.

Irailean, jendea ikasturte berrirako planak egiten hasten da, horregatik orain da gai hau plazaratzeko garaia. Helduen aisialdirako euskaraz zein eskaintza dauden azaldu zuten. Erakunde desberdinetako jendea beraz Jalgin bildu zena denak interes eta ezaugarri berdinekin: helduak dira, kultura jarduerak egiten dituzte, denbora librean aritzen dira eta euskaldunak dira.

Euskaldunak dira beste herritar asko bezala, euskaraz normaltasunez bizi nahi dute eta horregatik bizitzako esparru guztietan hala egiteko eskubidea dute, familian, lantokian, lagun artean eta noski aisialdian ere bai. Horretarako aukera egon dadin lanean aritu da Ttakun elkarteak, batzuetan bakarrik eta besteetan elkarte desberdinekin batera. Ahalegi-na egin eta gero, taloen inguru-



Ekzerretik hasita, Iñigo Bobillo, Joxe Mari Agirretxe, Joxe Kruz Labaka, Kontxu Iartzak eta Maider Oiarzabal.



Prentsaurrekora hurbildutako partaidea, ikasle eta irakasle guztiak bildu ziren ikasturte hasierako argazkia ateratzeko.

ko ikastaroa egin zen Santo Tomasarako egiten dituzten emakume taldearekin, makillaje ikastaroa antzerki taldearekin, gidoigintza parodiari begira, batukada eta larrain dantza San Pedroetarako.

Aurtengorako, ideiak oraindik ez daude guztiz zehaztuta, baina ordezkarri bakoitzak beren taldearen egiten diren ekintzak azaldu zituzten nahi duenak parte hartu dezan.

Aukera zabal

Maider Oiarzabalek dantza ikastaroaren inguruko azalpenak eman zituen. Asteazken arratsaldean eta ostegun goizean izaten dira klaseak Kulturetxean eta Maiderrek aipatu zenez ez da dantza maila altua edo gorputz berezirik eduki behar. Gogoia, ilusioa eta dantzari buruz zertxobait gehiago ikasteko nahia baiziki. Hitz egiterako orduan ez da euskaraz maila altua behar, bai ordea ulermeneko, animatzen

den orok izena eman dezake.

Helduen antzerki eskolak dagoeneko sei urte daramatza martxan emaitza geroz eta hobekia lortuz. Kontxuk azaldu zuen nola hasieran mimo eta clown-ekin hasi ziren eta gaur testuak interpretatzeaz gain sortu ere egiten dituzte. Hauek astelehenean arratsaldez eta astearteetan goizez biltzen dira baina jendea animatzen bada talde berri ere sortu daiteke hasi berrientzat.

Joxe Kruzek bertso eskolan egiten dutena azaldu zuen, jende aurrean hitz egiteko zentzua balio duen horrelako gauzak egitea esan zuen. Dozena bat lagun inguru elkartzen dira ostegun arratsaldetan baina horretaz gain askotan biltzen dira afaltzeko ere. Adin guztietako jendea dago, gaztetxoak, jubilatuak eta erdibidekoak horregatik sortzen da hain giro atsegin eta polita. Egia da horrelako jarduerak batean ezin dela edonon sartu baina gutxi dakitenekin oinarritzko gauzak ikasteko talde bat eratu daiteke. Xumela koruak ere euskaraz funtzionatzen du Joxe Mari ondo esan zuen bezala. Astelehenero biltzen dira euskaraz kantatu eta ondo pasatzeko adin tarte desberdineko jende artean. Hemen parte hartzeko ere ez da behar abeslari profesionala izatea Joxe Mari esan zuen bezala erretzailak eta txikitari eskolako korutik bota zuten jendea Xumelan sartu daiteke.

Iñigo Bobillok batukadaren

nondik norakoak azaldu zituen. Askok eta askok kalean ikusko zenituzten San Pedro- eta profesionalak ziruditen arren ikasketarik gabe egiten dute musika. Gutxi dira oraindik bakarrik ateratzeko horregatik elkartzen dira gaztetxoekin. Hauek ostiral arratsaldeetan edo larunbat goizetan elkartzen dira ensaiatzeko.

Iñigo bukatutakoan Ttakuneko Mailuk hartu zuen mikrofonoa eta Oinatzek egiten dituen irteerak kontatu zituen. Asteburuetan kultura aldetik mamitsuak diren txangoak antolatzen dituzte, adibidez hil honetako 21ean Markina-Xemeinera joango dira eta ez da edonolokoa izango.

Horrela euskarazko espazioak sortuko dira, alde batetik premia hori dutenentzat eta besteik euskaraz ikasten hasi eta utzi dutenentzat, edo hitz egitean trastez dabiltzarentzat hitz egiteko ohitura hartu dezan. Jarduera hauetan ibiliko den jendea euskalduna izango da eta prest egongo da behar duenari laguntza emateko.

Aipatutako jardueretan parte hartu nahi izanez gero Ttakun Kultur Elkartearen informazioa duzu behar duzun informazioa eta apuntatzeko aukera. Gainera, bertan aipatu ez den baina gustuko duzun zerbaitekin egin nahi izanez gero animatu kontaktatzea. Azken finean, talde hauena filosofia elkarlana da, guztion artean euskarazko guneak sortzea alegia. •



Goiko iruditan, ikasle ikasturtearen eskaintza zenbait ikastaro eta talde.

Dagoeneko bi talde martxan daude

Xumela korua hasi da martxan ikasturte berriarekin. Gainera jakinarazi dugutenez, Euskararen Maratoioan parte hartuko dute eta hori prestatzeko lehen ballehen eman diote hasiera ikasturteari. Iazko egun eta ordutegian berean hasi dira, astelehenero 19:30ean Landaberri BHI egoitzan. Gogorik baduzue abesteko, astelehenean azaldu lasai!

Oinatz mendiko taldeak irailaren 21erako iteera bat proposatzen du. Aurtengo bigarren izango den hau, Markina ondoan dagoen Santa Eufemia ermitara izango da.

Bertara gerturatzeko denak urtero ospatzen den erromeria ezagutzeko aukera izango du, besteak beste, trikitaliak,

bertsolariak, aizkolariak, harriztozailak... e.a. elkartuko dira giro ederrean.

"Bizkaita txango egingo dugula kontutan harturik, interesgarriak diren hainbat boko ezagutzeko parada ere izango dugu: Ziortza (Zenarruza), Kolegiata, Bolibar eta Markina herriak, esaterako" azaldu digute antolatzailak.

Txangora joan nahi duenak izena lehen ballehen ematea komeni da. Horretarako Ttakunetik pasa edo bertara deitu behar du (Geltoki kalea 4, 943 371448). Horretarako azken eguna irailaren 18a izango delarik.

Bidaia mikrobusean egingo da eta otordua norberak etxetik eraman beharko du. Mikrobusea Jalgi kafe-antzoikiaren aurretik aterako da goizeko 08:00etan. •



Lasarte-Orian N-1 errepidearen ondoan bizi diren biztanleek 70 eta 74 dezibelio jasaten dituzte egunez, onartutakoa baino askoz ere gehiago.

Lasarte-Oriak onartua baino dezibelio gehiago jasaten du

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako biztanleek herriatik pasatzen den N-1 errepideak eragiten duen 70 eta 74 dezibelio arteko zarata jasaten dute. Gipuzkoako herri zaratsuen delatza adierazi dute udalitik. Hau dela eta, Iñaki Mujika alkateordeak jakitera eman duenez, Udalak Gipuzkoako errepideen zarata mapari alegazio idatzi bat aurkeztu dio. Iñaki Mujikaren hitzetan, "gaur egun, jasaten diren zarata mailak murrizteko neurriak hartu daitezke nahi du Udalak".

Lasarte-Oriako biztanleek Munduko Osasun Elkarteak onartzen dituen dezibelio kopurua baino askoz ere gehiago jasaten du. Osasun Elkarteak egunez gehienez 55 dezibelio aholkatzen ditu. Lasarteoriatarrek, berriz, 70 eta 74 dezibelio jasaten dute eta N-1 errepidea gertuago duten etxeek 75 dezibeliotik gorako zarata jasaten dute behin eta berriro. Iñaki Mujika

karen iritziz "egoera jasanezina da" eta errepideak eragiten duen zarata zuzentzeko neurriak eskatzen ditu lehenbailehen.

Alkateordeak aldundian aurkeztutako idatzian azaltzen duenez, "errepidearen eraginpean dauden leku gehienak N-1 errepidea egin baino lehenago urbanizatutakoak dira eta zarata zuzentzeko neurriak hartzeko garaian, kontuan hartu beharko litzateke". Udalaren ustez Aldundiak Ekintza Plan bat egin beharko luke Lasarte-Oriako biztanleek jasaten duten egoera konpontzeko. "Plan horrek egoera hori jasaten ari den biztanlegoaren kopurua gutxitu beharko luke, beraz, eraginpean dagoen azalera gutxitu eta errepide inguruan

dagoen kalitate akustikoa hobetu beharko luke".

Neurriak behar dira

2005-2016 urte aldirako Euskadiko Errepideen Bigarren Planaren Berrikusketaren Aurrerapenari iradokizun-idatzi bat aurkeztu zuen Udalak, uda aurretik. Errepide Plan gintza berri horren aurrerapean Donostiako Bigarren Ingurabidea eta N-1 errepidearen birmoldaketa, Oriako gasolindegia parean, jasotzen dira. Lasarte-Oria Ingurumen Hobekuntza egitasmoan sartu den arren, Udala kritiko azaltzen da aurkeztutako idatzian. "Zarata zuzentzeko beharra jasota badago ere, neurriak ez dira esplizituki jarri Ingurumen-Inpaktuko Ebaluazio Bateratuan, ez dute

aplikazio egutegi bat Planaren barne (2005-2016) eta, horretara zuzendutako aurrekontua ez da nahikoa Planaren beraren ingurumen helburuak betetzeko".

N-1 errepidea Lasarte-Oria erdi erditik pasatzeak eragin handia du eta arazo ugari eragiten ditu. Oro har, Udaleko talde politiko guztiak bat egiten dute horretan, baina irtenbidea ez da erraza. Ana Urchuegiak, Oriako ezkerreko taldearen burua, iradokitzen duenez, "herria ez litzateke bitan banatuta izango eta espazio handia irabaziko litzateke herrian, atsedeneku, pasealeku, apartokaleku, espazio berde edo beste edozerentzat". Baina, alkateak irtenbide hori oso garestia izango litzatekeela gogoratu zion berriz ere Goi-kotexea zinegotziari. •

Sorosle ikastaroa Kultur Etxean

Gipuzkoako DYAk Manuel Lekuona Kultur Etxean, irailaren 17an eskainiko duen sorosle eta lehen sorospen ikastaroa egiteko lekurik ez dagoen arren, DYAtik jakinarazi nahi dute, agian azkenean momentuan sartzeko aukera izango dela, askotan izena eman duen norbait atzera bota daitekeelako. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 943 46 46 22 telefonora deitu daiteke.

Ikastaroak hiru asteetako iraupena izango du, irailaren 17tik urriaren 7ak bitartean. Ikastaroa arratsaldetan eskainiko dute astelehenetik ostegunera arratsaldeko zazpizetarik bederatzietara.

Biztanlego osoari irekia dagoen ikastaroa da eta ez da beharrezkoa aurrez inolako ezagupenik izatea. Egunerokotasunean gerta litezkeen arazoei aurre egiteko baliabideak irakatsiko zaizkie ikasleei. Ezagupen aruntak baina era berean baliagarriak izango dira, adibidez bihotz eta biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak eta abar. Gainera ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle-Titulua eskuratzeko aukera izango du. Unibertsitatean ikasten ari direnentzat 2 kreditu konbaldatzeko balioko die Sorosle-Titulu horrek. •

Begirale ikastaroa

Ttakun Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz begirale ikastaroa antolatu du herrian. Urtxintxa Aisialdiko Hezitzaileen Eskolako irakasleek eskainiko duten ikastaroak 400 orduetako izango da. Saio guztiak larunbatetan izango dira, goiz eta arratsaldean, urriatik maiatzera. Lasarte-Oriako herritarrek %9ko beherapena izango dute.

Ikastaroari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, Ttakuneko bulegora gerturatu, 943 371 448 telefono zenbakira deitu edo aisia@ttakun.com helbidera mezua bidali dezakezue. •

Munduko Osasun Elkarteak 55 dezibelio onartzen ditu, lasarteoriatarrek 74 jasaten dute

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketak

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai. Jalgi
kafe-antzokian, egun osoan.

Osteguna, 18

Hitzaldia

Helena San Pedro psikologoak
*Garapen psikoafektiboa: Hau-
rren emozioa eta pentsamen-
dua* hitzaldia eskainiko du Otik
7ra urteko umeen gurasoei
zuzendua. Kulturetxean,
18:00etan. GAZTELANIAZ

Osteguna, 25

Hitzaldia

Xabier Arrazolak eskolako
jazarpena den *Bullying-a nola
sahiestu eta tratatu* azalduko
du kulturetxean, 19:00etan.
GAZTELANIAZ

Larunbata, 27

Jaialdia

Lasarte-Oriako V. Nazioarteko
Akordeoi Jaialdia ospatuko da.
Herriko Zero Sette orkestraz
gain, Orosz Zoltán hungaria-
rra eta Sabadelleko konserba-
torioako akordeoi orkestra
izango dira kulturetxean
19:30ean. Sarrera 4 euro.



*Ostiralean Rock Jam Sesioa
Jalgin beratarren eskutik*

Ikasturtearekin batera Jalgi kafe-antzokiko Jam Sesioak ere
hasi dira. Aste honetako Rock Jam Sesioa dela esan gene-
zake, izan ere, gonbidatutako taldea Berako Sixty Sexers
taldea baita. Aukera bikaina beraz, musikaz gozatzeko
ostiralekoa. Beratarrek ikuskizun politta eskainiko dute.

OSTIRALEAN, 22:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik
21:00etara

Irailak 27tik aurrera larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Oharrak

Tenerifera bidaia

Biyak Bat zaharren egoitzak
Tenerifera bidaia antolatu du
urriaren 14tik 24era. Hotelean
mantenu osoa izango da; islaz
gehiago gozatu nahi dutenek
aukerazko txangoak izango
dituzte, hala nola, Teideko
parke nazionalera edo Santa
Cruzera. Prezioa 599 eurokoa da
eta izen ematea Biyak Bat
degutzean egin behar da.

Parrokiako Katekesia

Katekesia egin behar duten
haurren izena irailaren 17tik
aurrera eman behar dute San
Pedroko parrokiaren edo 943 37
30 08 / 669 76 22 52 telefono-
etara deituta.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-
bide Eskolan teoria zein
enpresa partikaz osaturiko
OFFICE ikastaro bat hasiko
da. Txekinbide antolatuta
eta ikastaroa ondoren aipa-
tzen diren giza taldeei zuzen-
duta dago: bere lehenengo
enplegua izan ez duten 35
urte bitarteko pertsonak, 12

hilabete baino gehiago lanik
egin gabe daramaten 40 urte-
tik gorako pertsonak eta lan
egin nahi duten emakumez-
koak. Informazio gehiago
943 364600 telefonoan.

**Margo eta marrazki
ikastaroak**

Lasarte-Oria Bizilagunen
elkartek gaztetxo eta hel-
duentzat antolatzen dituen
margo eta marrazki ikastaro-
tako izen-emateko epea zabal-
du du: irailaren 15, 16 eta
17ean, arratsaldeko 17:00eta-
tik 19:00etara, Iñigo de Loyola
12. zenbakian.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak ikasturte-
ari hasiera eman dio eta 6 eta
65 urte arteko herritarrek ani-
matu nahi ditu partehartzera.
Helduen ostegunak astelehe-
na eta ostegunetan 20:00eta-
tik 21:30etara burutuko dira,
Arantzazuko Ama elizazpiko
aretoan. Alboka txiki haurren
abesbatzak, berriz, ostegune-
ro ordubeteko saioa izango
du 19:00etan hasita.

Oriako Karmengo Kapera

Abuztuko opor aldi garaia
pasa ondoren, irailean berriro
hasi dira mezak aurreko ordu-
tegi berdinarekin, igandero
goizeko 11:30ean.

Odola ateratzeak

Udararen ondoren hilabete
honetan bestetan bezala odol
ateratzeak hileko azken astele-
henean, irailaren 29an egingo
dira Osasun Zentroan,
18:30etik 21:00etara. Anima-
tu, odola ordezkazina da eta!

Xumela korua

Ikasturteari hasiera emanez,
gaurtik hasita, astelehenero
bilduko dira Xumela koruko
kideak. Astelehenero arratsal-
deko 19:30ean bilduko dira
Landaberri BHIko egoitzan.
Interesa duenak agertzea bes-
terik ez du.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Eskutitzak

Zezen jaioz gero (II)

ostiraleko zenbakitik dator

... Goiz fresko batean,
hodeiertzera begiratu eta
mugitzen den kubo handi
bat ikusten duzunean, egun
hura ahaztu duzu dagoene-
ko. Gutxienez lau urte igaro
dira orduz geroztik eta hori
zezen batentzat denbora
asko da. Ez duzu sumatu ere
egiten hori izango dela zeure
giroa ikusi eta usaintzen
duzun azken eguna izango
dela. Atzean geldituko da
betirako artea eta ez kai edo
tomillozko paisaia.

Ibilgailuaren triki-traka
jasangaitza da. Atsedetik
gabe, mugitu edo pixka
batean deskantsatzeko etzan
ahal izan gabe. Zezena zara,
ez duzu denbora neurtzeko
ahalmenik (zertarako eduki
halako gaitasunik?), baina
kolpe, gonbito, zorabio eta
larritasunez beteriko bedera-
tzi ordu izan dira. Zezenke-
taren egunaz geroztik ez
zenuen halako gauza ezatse-
ginik sentitu. Aldapatxotik
jaisten zara hogeai kilo
gutxiagorekin koloka eta
mesfidati. Ez dakizu zeure
kideetako bat duela bi aste
bidean hil zela ataskua zego-
ela eta.

Egun pare bat gehiago eta
berri ere zezentoki beldur-
garria, ziztatzaren duten
makilak eta joan etorriak
hara eta hona... la ahaztuta
zegoen egun hartako ziztada
bezalako beste bat eta dago-
en irteera bakarra inguru
borobil, zalapartatsu, itogarri
eta pixka bat ezaguna den
toki hartarako da. Berriro
ere itxura gaiztoko zaldi gai-
neko tipoa egiteko berbera-
rekin, baina oraingoan era
ankerragoan eta oraindik ere
luzeagoan. Zezen jaioz gero
gizakiaren besoaren tamai-
nako burdinazko ziria sar-
tzen dizute bizkarretik. Sartu
eta atera egiten dute ziria
zauria handitu dadin. Behin
barruan dagoela, tresna
madrarikatua bere buruaren
inguruan biratzen dute zauri-
a barrutik arraspatzeko,
horretarako propio ziria
sokaz inguratuta dago.
Zezen jaioz gero ergela zara
eta zaldia bultzatuta tortura-
tik ihes egingo duzula pen-
tsatzen duzu. Dagoeneko, ez
dakizu ihes egiteko aukerarik
ez duzula.

Taxugabeko itxura argitsu
bat korrika gerturatu eta
behin eta berri eztenak sar-
tzen dizkizu izugarritzko
mina sortaraziz. Hauek ken-
tzen saiatuz gogor astintzen
duzu burua, baina musku-

luak urratzea besterik ez
duzu lortzen. Galdu duzun
odola dela eta bista lausotu
zaizu eta ez duzu ohiko
bihotzeko erritmoa berresku-
ratu. Egarriak eztarria erre-
tzen dizu, eta arte azpiko
putzuko urean pentsatzeak
ezinegona zailagoa egiten du
oraindik. Ez dago etenik.
Dudarik gabe hau aurrekoa
baino okerragoa da. Otenga-
beko oihuen erruz ez dago
atsedenerako betarik.

Zezen jaioz gero, tipo
distiratsua aurrean jartzen
zaizu eta bat-batean sablea
eskuan duela biriketan sar-
tzen dizu. Batzuetan bihotza
ere bai. Momentu hau bere-
ziki mingarria da, oxigeno
poltsa leherutu baituzte eta
itotzen hasten zara. Ahotik,
lerde eta mukiekin batera
odol jario izugarria ateratzen
zaizu.

Zezen jaioz gero puta
ideiarik ez duzu zein barre-
garria den azkenean zeure
atadira, zeure putzura, zeu-
reekin bueltatzen utziko
dizutela pentsatzea. Lurrean
mugitu ezinik zaudela oke-
rrena susmatzen hasten zara,
belarriak moztzen dizkizutela
sentitzen duzu burutik ban-
tzen dizkizuten arte. Batzue-
tan, ezparak eta eltxoak
uxatzeko hain baliagarria
izan zaizun isatsak zorte ber-
dina izaten du.

Larutegira iritsi baino
lehen hil besterik ez duzu
nahi, baina batzuetan patua
hain krudela da hau ez dela
gertatzen.

Ez duzu inoiz jakingo zuk
eta beste bost kidek jasan
duzen estira, aitzakia pro-
pagandistikoa izan dela
terrorismoa, genero indarke-
ria edo gerraren aurka dirua
biltzeko.

ERREDAKIOAK ITZULIA

Kepa Tamames

Hiribusa proban, irailaren 22tik 26ra

■ Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela eta, Lasarte Orian barrena ordu erdiro ibiliko da goiz eta arratsaldez ■ Bizikleta irteera eta jolasak, bigarren eskuko txirringen merkatua eta egoki gidatzeko ikastaroa ere egingo dira ■ Garraio pribatuaz eta bere ondorioetaz pentsaraztea du helburu

JON ALTUNA

Mugikortasun iraunkorraren astea burutuko da Lasarte-Orian Europako beste hainbat tokitan bezala irailaren 19tik 26ra bitartean, eta berrikuntza nagusiak bi dira: batetik aste-betez herriko kale eta auzoetan hiribusa ibiliko da eta bestetik, txirringen bigarren eskuko merkatua jarriko da, Ricardo Ortega Ingurumeneko Udala Departamenduko buruak osteguneko ekitaldien berri ematerakoan adierazi zuenez.

Hiribusaren eta merkatu txikiarekin batera, aurreko urteetan bezala, eraginkorki gidatzeko ikastaroa, hau da, autoa erabiltzerakoan gutxiago kutsatzeko eta erregaia aurreratzeko gomendioak, Azkorteraren bizikleta irteera, bizikletarekin trebetasun proba eta jokuak umeez eta autorik gabeko eguna dira besteak beste, irailaren 19tik 26ra bitartean

Lasarte-Orian burutuko diren iharduerak.

Ostegun goizean prentsaurrean aurkeztu zuten egitaraua, Ricardo Ortega EB-Berdeak taldeko zinegotziak, Mikel Urruzola antolaketan lagundu duen Artelatz-eko partaideak eta Santiago Sarasola Donosti-Tolosaldeko autobus Zerbitzuko ordezkariek. Ortegak nabarmendu zuen helburua herritarren gogoeta bultzatzea dela, hau da konturatu dadila garraio pribatuaren erabilerak eta ditugun ohiturek osasunean eta ingurumenean duten eragina. "Honetaz pentsaraztea da egitarauaren helburua" esan zuen eta parte hartzeko gonbidapena luzatu. 6.500 eskuorri banatuko dira herritarrei guztien berri emateko.

Ahal diren joan etorri gehienak oinez egiteko, garraio bide bezala bizikleta ibiltzeko eta garraio publikoak erabiltzeko gomendatzen du



Ezkerretik hasita, Santiago Sarasola, Ricardo Ortega eta Mikel Urruzola.

Lasarte-Oriako Udalak. Autoa partekatzeari bultzada ere eman nahi dio eta Udaleko web orrialdearen bitartez autoa partekatzen laguntzen du, hau da, (www.lasarte-oria.compartir.org) lanera, ikastera,... autoz joan-etorria egin eta beste norbaitekin bidaia egin nahi duten

herritarrak harremaneta jartzeko topagunea da. Guzti honi buruzko iritzia, iradokizun eta proposamenak jasotzeko buzoi berdeak daude Udaletxe Sarrean, Kultur Etxean, Kiroldegian eta Jubilatuen Egoitzan edo Ingurumeneko departamentura bidali daitezke.

Hiribusa izango da Asteko protagonista. Irailaren 22tik 26ra ibiliko da astelehenetik ostiralera, goizeko 7.30etatik 20:30etara orduerdiro Antxixutik aterata. Doako zerbitzua eskainiko du eta besteak beste, Oria, Basaundi, Zabaleta, Goiegi eta Mitxelingo kirolgunean izango ditu paradak. Arranbide eta Bista Ederretik puntuetan pasako da norbaitek 605 713 512 telefonora deitu eta eskatzen badu.

Bigarren eskuko bizikleten merkatu txikia 19an ostiralez egingo da arratsaldeko 4etatik 7.30etara Okendon. Bizikletak eta osagarriak saldu eta trukatzeko aukera izango da. Nahi izanez gero aurretik utzi daiteke materiala 943 670 249 telefonora deituta. Egun berean egingo dira bizikleta ibilaldia eta jolasak Okendo inguruan.

22an, autorik gabeko egunean Kale Nagusiako parte bat itxita egingo da autoentzat. •

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
% 40 - % 75
2008-09

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Ganbo kalea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 19ra

Munterri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aeonet.net
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 26ra

ona eta merke

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

